

*Sotera Gallastegi*

*Bergara,  
Gipuzkoa  
(1888-1985)*

Aurkibidea

**Biografia**



Begarako kalean 1888. urtean jaio zen eta 1985ean hil zen 97 urte zituela. Hil zen urtean egin zitzaion Begarako Ahozko Bilduman dagoen grabazioa.

# Zintak

## BER-055

- **Proiektua:** Bergarako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 14 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Bergarako Udala

## Pasarteak

### 1. San Pedro bezperako ohiturak

- **Erref:** BER-055/001
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

#### Laburpena:

<p>San Pedro bezperako ohiturak zeintzuk ziren. Poz handia jendearen artean. Iluntzean Salbea egoten zen eta ondoren pasakalea. Neskame eta morroi zeudenak etxera itzultzen ziren egun horretan. San Pedro eguna: danbolina, meza nagusia, kontzertua, etab. Arratsaldean erromeria.</p>

#### Transkripzioa

-(San Pedro bezperan) ohitturia izeten zan, aparteko gauza bat jentian artian: poza. Eta gero illuntzian Salbia. Eta Salberako etorten zien kriaue eta kriada zeren danak eta eren etxetara. Eta han eren ongietorrixak eiñ alkarri ta gero Salbera. Ta Salbetik ertendakuan, ba egoten zan pasakallia kale danetati, hasi San Pedro kalia. Ez, Boko Plazan uste dot, eta gero Bidekutzera. Eta Bidekutzian bi, "toketak" esaten gontsan, e, bi pieza, "toketak" zien orduan, bi toketa. Eta gero Goiko Plazara, ta Goiko Plazatik kuartelera; Azkonaneko aurrian beste bi pieza.

-Jentia dantz eitten zeban?

-Hoixe, hoixe eitten zebala dantz!

-Jente asko egoten zan?

-Asko.

-Harek bai jaixak!

-Harek bai. Haretzek zien jaixak, eta alegriak gaiñera, e, alegriak. Eta gero akabatzen zan haura plazan, da han be eiñ beste ipursalto batzuk eta tira, konforme danok, eta danok salda, eta urtebetian ikusi barik gendenok be bai danok eta, danok pozik.

-Anbiente ona, ezta?

-Ona, ona anbia. Etzeuan han burrukaik eta. Eta gero San Pedro egunian, ba lelengo izeten zan danbolina, kaleik kale; goizian, e, diania, eta gero bandiak eitten zeban rekorridua. Gero meza nausittara. Meza nausittara joaten zan aiuntamentua "en corporación", esaten zan bezelaxe. "En corporación", danok, e, aiuntamentua. Eta gero, meza nausixa

akabatzen zanerako bandia egoten zan elizpian, eta aiuntamentu danakin, aiuntamentukuekin danak aiuntamentura. Eta handik eitten zebeñ luntxa. Eta gero konziertua, baiña konzertu haundixa, e, bandiana.

-Goiko Plazan?

-Behekuan, Beheko Plazan.

-Egon zan ba urte batzuk Goiko Plazan be jotén zebena. Etza akordatzen bandiak zela jotén zeban?

-Atsaldian-da bai.

-Konziertua Beheko Plazan?

-Konziertua beti Beheko Plazan jo izen da. Eta halaxe, ederki pasatzen zan orduan. Hurrengo eguna.

-Atsaldian erromeixia?

-Atsaldian erromeixia, haura San Pedro kaliañ, e.

-Goiko Plazan, ez?

-Goiko Plazan, baiña gure kaliañ be ein bihar izeten zan pasiaria. Pasiadak, handik pasau eta Goiko Plazara. Eta Goiko Plazan bi pieza ero eiñ eta berriz gure kaletik atzera Goiko Plazara. Ta holaxe. Gabiañ be igual.

## 2. Autorik ez kaleetan

- **Erref:** BER-055/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Autorik ez kaleetan. "Kotxe landuak" eta "kotxe-zestak".

### Transkripzioa

-Hori, kotxeik ez zebillañ denporakuak die?

-Bai, bai.

-Kotxeik ez, trankil kaletan.

-Trankil. Astiañ ba uda-atzeniañ garo karruak eta holako batzuk, besteik etzeuañ. Garoz kargauta karruak eta. Karruak, burdixa, burdixa.

-Bestela kotxe landuak eta horrek ez ziañ pasatzen?

-Bai. Horrek, e, horrek aberatsenañ ziañ. "Kotxe landúa", eta beste batzuk "kotxe sestak" esatén jakuenañ.

-Zelakuak ziañ ba harek?

-Harek ziañ hola kurtiñekiañ-da.

-Diligenziañ modukuak ala zela ba? Gaiña tapauta eukitzen zebeñ, ala?

-Bai, bai.

-Eta kurtiñañ aldameñetan?

-Kurtiñañ ez, bere zera.

-Kuardua edo zeozer, ez?

-Bai.

-Estalpia?

-Handik errez jaistekua. "Landua", berriz, bueno! Landua dana tapautakua. Atiakiañ, eskillarañ behera jatxi bihar, eskillara bat pasau ein bihar behintzat behera jeixteko. Eta haura dotoria zan. Sestia menustxuaua.

### 3. Lehenagoko autoak zelakoak

- **Erref:** BER-055/003
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:05:01. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

#### Laburpena:

Autoak zelakoak.

#### Transkripzioa

-Eta zegatik esaten ete zotsen sestia? Zestozkua edo zan karruoi, ala?  
-Ez, ez.  
-Gizona: Brillante-brillantia.  
-Brillantia?  
-Brillantia ez.  
-Gizona: Han zeren Movillasenian bi kotxe lando.  
-Ez, baiña sestak, beste batzuk kotxe sestak esaten dau.  
-Sestak etzien halako...  
-Dotoriak be?  
-Gixajo xamarrauak landotik.  
-Bai, bai, beste kategorixa bat beherao.  
-Da halaxe, orduan ederki jiratzen giñan.

### 4. San Pedro eguneko erromeria

- **Erref:** BER-055/004
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

#### Laburpena:

San Pedro eguneko erromeria. Dultzaina; musika banda eta trikitia.

#### Transkripzioa

-Erromeixia San Pedro kale alderutz orduan?  
-Bai.  
-Eta ze joten zeбен, trikitixia ala agarraua be bai edo zer?  
-Hiru soiñu-jenero egoten zien.  
-Dultzaiñia be egongo zan, ezta?  
-Dultzaiñia be bai, dultz(a)iñia zereko aurrian, juzgauko aurrian egoten zan, eta panderua ta horrek oin batzokixa dauan aurrian. Eta juzgauan, goixan, gaur eztakitt zela dauan, eskillarak igo ta terreplen haretan bandia  
-Goixan?  
-Goixan bandia. Eta gu danok behian dantzan.  
-Ze ederki.  
-Edarki jiratzen giñan.

## 5. San Martzialgo erromeria

- **Erref:** BER-055/006
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

### Laburpena:

<p>San Martzial. Goizean letaniarekin batera igo, meza entzun eta txokolate jana egoten zen. Erromeria; aureskua.</p>

### Transkripzioa

-Horraittio ezta galdu oinddio hoixe kostunbrioi, oin be aureskua eitten dabe ta.  
-Eingo dabe. (San Martzialdik) handik bajadia, han iluntzira arte ero ibili tta. Bajadia ta. Mutillakin baldin bazan "de brazete" Satamaiñaraiño. Da Santamaiñan atso pilla haundi bat begira, eta, ja!, mutillakin jatxi giñala etxekuei kontauko ete dotsen billurrakin, laga mutillai besotik eta...  
-Suelto?  
-Suelto.  
-Bakarrik bajatzen zienak be ez zan ba holako zera izaten ez, han ez zan ba kostunbria mutillekin bajatzia?  
-Orduan bai. Sekula bada ta San Martzialdik bai.  
-Mutillak be zaiñ egoten zien egun hori aillegatzeko neskei oratzeko ta. Roskillak eta ugari salduko zien han, e. Eta haura, "agua de limón" saltzera juten zana?  
-Uuu!, Agua de limón! Halakotxe hojaletazko pote bat tapiakin, tapa haundi batekin, limoi azal batekin uda guztia. Bi bolau sartu erekin batera, bai, eraiñ-eraiñ-eraiñ-eraiñ eiñ, haura gastatzen zanian, benga agua! Bete. Haura gastatzen zan? Berriz bete. Beti irabazixan zeuan.  
-Haretzek negoziua segurua.  
-Bai.  
-Danak baso batetik eraten.  
-Danok. Ta zain gaiñera.  
-Txandan.  
-Txandan. Bost xentimo pagau haura ta, tira, agua bolaua eran giñuala ta.  
-Ze euko ete zeban harek azkenerako. Uda guztia bi limoi bueltaka. Jentia pozik hauraxe eranda.  
-Pozik, San Marzialen ura bolauakin eran giñuala ta hola. Eta bolaua zerian, Larrañaganeko dendan ero ta; limoia be bai nunbaitten.  
-Haura zela izeten zan, mutillak konbidatzen zeuben haura?  
-Jeneralian. Toketa bat dantzari eiñ dda; haura emoten zebana grandia zan.  
-Esplendidua.

## 6. San Martzialgo erromeria

- **Erref:** BER-055/007
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:09:54. **Bukatu:** 00:12:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena:**

<p>San Martzial. Iluntzean mutilarekin besotik helduta jaisten ziren.</p>

**Transkripzioa**

-Gero plazan erromeixia, ezta, bajatutakuan?  
-Bajautakuan plazan. Eta gero ba mutillak baldin bazeukan pastelerixara. Orduan heladuak etzeban hainbeste zer. Kafia, kafia hartzera. Merkiaua zalako ero.  
-Kostunbria ero, kostunbria izengo zan.  
-Eta haura zana mutxo!  
-Kafia hartzera, e? Orduan San Marzialen "agua de limón" pagau eta gero kafia pagatzen zebana, jo, ez zan edozer gauza izango.  
-Mutxo, haundixa haura.  
-Esplendidua haura.  
-Bai.  
-Da gero ze ordutarako etxera?  
-Segiduan. Hamarretarako bai behintzat, nola ta nahi be.  
-Danok erretirauta ia.  
-Bai.  
-Orduan akabau eitten zan dana hamarrak ingururako?  
-Dana akabatzen zan, dana.  
-Jo, ze ederki.

**7. San Martzialetik jaitsi eta erromeria plazan**

- **Erref:** BER-055/008
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena:**

San Martzialetik jaitsi eta iluntzean erromeria plazan.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-15

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com